

Leterenak

Robert Lowell (1917-1967), poeta estatubatuar bat izan zen. Amerikako Estatu Batuetako Liburuaren Sari Nazionala (*National Book Award*, 1960, Life Studies obrarengatik) eta Pulitzer Saria, poesian (1947an eta 1974an), irabazi zituen. Bakezalea zelako zaigu ezaguna: kontzientzia arrazoiak alegatu zituen II. Munduko Gerrara ez joateko (eta kartzelara joan zen aldi batez), eta Vietnamgo gerraren aurka idatzi zuen.

1960an, hau da, sari inportante hura jaso berri, *Imitations* liburu argitaratu zuen. Liburu hartan, Homero, Safo, Villon, Leopardi, Rilke, Pasternak, Baudelaire eta Rimbaud "itzuli" zituen, eta komillak erabili ditugu zeren (Lowellen hitzak dira), "ingelese biaz idazten saiatu naiz, nire autoreek, gaur egun eta Ameriketara bizi izatera, agian egingo zuketena egiten saiatuz".

Kritikak inolako eragozpenik gabe hartu zuen *Imitations*, eta inork ez zuen ezbaian jarri lanaren originaltasuna.

Ezaguna da horrek, eta horrek bezalakoek, agerian jartzen duten paradoxa: Lowellek egin zuen hori bera Periko Smithen egin izan balu (eta harrapatu izan balute), orduan zer?

Erantzuna ere ezaguna da: Periko Smith plagiatzaileentzako sutean erreko zuketena.



Jon Alonso

IDAZLEA

Eztabaida, literaturari dagokionez, hor kokatzen da: zergatik manipulatu dezake idazle aitortu batek literatur tradizioa, arazorik gabe, eta ezezagun batek egiten badu, aldiz, zigor kodea aplikatzen diote?

Eztabaida, literaturari dagokionez, hor kokatzen da: zergatik manipulatu dezake (itzuli, kopiatu) idazle aitortu batek literatur tradizioa, arazorik gabe, eta ezezagun batek egiten badu, aldiz, zigor kodea aplikatzen diote?

Bernardo Atxagaren plagiatzeko metodo famatuan ere, "izen pixka bat izatea"

zen arauetako bat. Eztabaida ezaguna da eta denetariko iritziak daude.

Ordea, Lowellek ez zuen ezkutatu maite zituen poetak itzultzen ari zela, eta idazle moduan zeukan eskumena erabili zuen argi eta garbi.

Idazleek usu erabili dute beren eskumen edo pribilegio hori era probokatzailean, eztabaidak pizteko, kontraesanak azpimarratzeko, inori arpa jotzeko...

Ez dirudi horrelakoa zenik Xabier Leteren asmoa. Nekez epaituko dut nik zein zen asmo hori, baina konforme egongo zarete nirekin, gure ezjakintasunaz barre egitea edo eztabaida piztea izan bazen, kale egin zuela, zeharo.

Orduan? Zergatik jokatu zuen Letek Periko Smith balitz bezala? Horixe da eztabaida, jada literarioa ez dena, beselakoa baizik... Morala, ausaz?

Baina kontuz, hildakoez gaizki esaka aritzea oso itsusia omen da, eta isil nadin.

Beraz, hildakoen gainean gaizki esaka aritzerik ez denez, biziaren gainean gaizki esaka aritzera pasatuko naiz; *status quo*-aren zarta jotzaile horien guztien gainean, salatuaz gogoeta egin orde, salatzailearen aurka aritu diren horien gainean. Neoliberalismoa ez da nagusitzen konplizerik gabe, literaturan ere ez. ■

3 FINALURREKOA

MARTXOAK 3 LARUNBATA

ARAMAIOKO SASTIÑAN

19:30 19:00 PIKOTSOA

FINALURREKOA

(SARRERA LIBREA)

PUNTUAZIOAREN ARABERA 2.TALDEA

VS

E LIGAKO IRABAZLEA

www.bertsozale.eus/arabg

Babesle nagusiak